

Elkarbizitza osasuntsua

Haur txikiak eskolatan direnean beste haur eta helduekin kontaktuan jartzen dira, eta haien inmunitate sistema murriztagoa denez, gaixotasunak hartzeko arriskua areagotu egiten da.

Haurra gaixorik dagoenean, ikastetxean ezinezkoa izaten da egoerak eskatzen dituen arreta eta baldintza bereziak ematea. Egoera hauek igaro beharreko etapa gisa hartu behar dira, eta unean uneko gaixotasunak eskatzen dituen pausoak bete behar dira. Horrela, haurraren osasuna eta beste guztiena zaindu eta bermatuko da.

Hautzaroan gehien izaten diren sintomak:

Sintomak	Jarraitu beharreko ereduak
Sukarra	Hauetariko bat izanez gero, haurra ikastetxera ez bidali, haur beraren eta beste guztien onerako
Gonbitoak	
Beherakoak	

Hauetariko sintomak edo besteren bat Ikastolan antzematen bazaizkio:

- Irakasleak jakinaren gainean jarriko ditu gurasoak.
- Umearen bila etorri beharko dira arduradunak ikastolara.
- Egoeraren berri emango die hezitzaileak.

Zuen seme-alabari irakasleak medikazioren bat eman beharko balio, medikuaren errezeta eta gurasoen edo legezko arduradunaren sinadura beharko luke.

Hemen doakizue hautzaroan interes handien duten gaixotasun transmitigarrien zerrenda:

Gaixotasun arruntenak	Ikastetxeari jakinarazi	Ikastetxera joan gabeko aldia	Pediatrak emandako alta
Faringitisa	Bai	Pediatraren irizpidearen arabera	Ez
Laringitisa	Bai	Pediatraren irizpidearen arabera	Ez
Amigdalitisa	Bai	Pediatraren irizpidearen arabera	Ez
Barizela-astanafarrera	Bai	Erupzioa hasi ondoren 7 egun edo zarakar guztiak osatu ondoren	Ez
Eskarlatina	Bai	Tratamendua hasi ondorengo 48 ordutan	Ez
Gastroenteritisa	Bai	Behararik ez izan arte	Ez
Salmonellosia	Bai	Pediatraren irizpidearen arabera	Bai
Hestetako parasitoak	Ez	Bat ere ez	Ez
Zorriak	Bai	Zorriak eta bartzak kendu arte	Ez
Konjuntibitisa	Bai	Tratamenduaren 3 egun ondoren; eboluzioaren arabera luza daiteke	Bai
Aftak	Bai	Pediatraren irizpidearen arabera	Bai

Ikastetxeari derrigorrez adierazi behar zaizkion gaixotasunak eta pediateraren alta behar dutenak

Gaixotasun arruntenak	Ikastetxeari jakinarazi	Ikastetxera joan gabeko aldia	Pediatrak emandako alta
Hepatitisa A, B, C	Bai	Eboluzioaren arabera	Bai
Meningitisa	Bai	Eboluzioaren arabera	Bai
Tuberkulosia	Bai	Eboluzioaren arabera	Bai
Elgorria	Bai	Erupzioa izan ondorengo 4-6 egunetan	Bai
Errubeola	Bai	Erupzioa izan ondorengo 7 egunetan	Bai
Hazizurriak	Bai	Sintomak hasi ondorengo 7 egunetan	Bai
Ezkabia	Bai	Sintomak hasi ondorengo 7 egunetan	Bai
Hazteria	Bai	Tratamendua bukatu arte	Bai
Kukurruku eztula	Bai	Tratamendua hasi ondorengo 5 egunetan	Bai

Medikazioa hartzeko jarraibideak

Ordu tarteak

6 orduetik behin

8 orduetik behin

Orduak

6-12-18-24

8-16-24

Hauak dira pediatrek gomendatzen dituzten eta osasundegietan erabiltzen diren jarraibideak.

BESTE GOMENDIO BATZUK

Zuek, gurasook, oso paper garrantzitsua betetzen duzue haurrenganako ohiturak sortarazte- rakoan. Beraz, kontutan hartu:

☑ Eguneroko garbitasun pertsonala.

☑ Jantziak sarri aldatzea.

☑ •Astero azazkalak moztu, bai garbitasunagatik, bai zauriak saihesteko.